



HIRITARTASUN AKTIBORAKO ORIENTABIDEAK

HIRITARTASUN INTERKUTURALA

Europako biztanleak gero eta gehiago erlazionatzen dira elkarrekin: lana, turismoa, ikasketak... Bestalde, inmigrazioa dela bide, kultura ezberdin asko elkarri eragiten ari dira. Beraz, oso arlo garrantzitsua da hau.

Lehenengo eta behin, dimentsio interkulturalaren oinarriak zehazten saiatu behar dugu. Biztanleen ustez, kidesun sentimendua garatzea funtsezkoa da.

Gai hau dela-eta, ikastetxeetan aspaldi honetan egiten ari dena aprobetxatu behar da eta, hortaz, inklusio eta ekitatearen pedagogia izango dugu abiapuntu, izan ere, haren funtsa elkartasun inklusiboa da, hain zuzen ere, gure ustez, kidesun sentimenduaren oinarriak egokiena. Ikastetxe askotan egin dira eta egiten ari dira proiektu asko ildo horretan.

Kontuan hartu behar da kulturen arteko erlazioei buruzko kontzeptu eta teoriaren garapena. Hasieran kulturalizazioa asimilazioan oinarritzen zen, eta gero kultur pluralismoaren onarpena adierazteko erabili izan da. Beraz, dibertsitatea, formalki bada ere, aintzat hartzen da eta onartzen da. Hori dela-eta, beste berba bat hasi zen erabiltzen kulturen arteko elkarrekin nagusitasuna emateko. Interkulturalitatea kontzeptuaren bitartez aditzera eman nahi da kultura propioa baieztatzen dela, besteak gutxietsi gabe. Prozesu hori aberasgarria izan daiteke modu egokian eginez gero, hain zuzen ere, kultura guztiek elkarrekin eta elkarri eraginez (Plan para la atención al alumnado inmigrante en la Comunidad Autónoma Andalucía <http://www.juntadeandalucia.es/educacionyciencia/dgoes/scripts/MATERIALES/INMIGRANTES/pimgmts.html>, 8. eta 9. orr.).



Zentzu horretan, hezkuntza zentroetan halako prozesuak bultzatzea eta sustatzea izan behar dugu helburu.

Horrenbestez, gure hezkuntza-jardunen ondorioz lortu beharko genuke ikasleak:

- **Bere identitatearen jakitun izatea eta onartzea.** Ikasleak bere ezaugarri kultural eta pertsonalak bilatu, ezagutu, baloratu, adierazi eta baieztatu behar ditu. Bestalde, jakin behar du elementu horiek guztiak berak eta beste pertsona askok partekatzen dituztela, eta, ondorioz, kidesun bakoitzak beste batzueganako lokarriak ematen dizkigula eta taldekidetzen gaituela.
- **Bere kidesunak gehitzea eta joritzea.** Gure ikasleek euren kidesun dibertso eta kontraesankorrek onetsi behar dituzte, inongo kidesunari uko egin gabe.
- **Besteen identitateak errespetatzea eta ulertzea.** Hau egiteko talde etniko eta kulturalen estereotipoak eta aurreiritziak kritikoki identifikatu eta baloratu beharko dira.

HIRITARTASUN DEMOKRATIKO ETA SOZIALA

Europa eraikitzeko prozesuan oso proiektu ezberdinak ari dira zeingehiagoka. Garrantzitsua da hiritarrek proposatzeko eta erabakitzeko ahalmena izatea. Horretarako jakin behar da sistema politikoez nola funtzionatzen duten, interesak nola bideratu eta sistema kritikoki aztertzen, guztientzako bizimodu zuzen eta duina lortzeko asmotan.



Dimentsio demokratiko eta soziala ere landu dezakegu ikastetxean. Egia esan, badira programa asko aspaldian nolabait horretan ari direnak: hiri hezitzaileak, eskola demokratikoak, talde makalenen *empowerment* edo jabeakuntzaren aldeko programak (ikus esate baterako N. Bartolome eta F. Cabreraren lanak), irakasle askok, senperrenak eginez, aurrera ateratzen dituzten propagandarik gabeko ekimenak, eta abar.

Kontuan hartuta desberdintasunak (ondasun banaketan, diru sarreretan, hezkuntza-mailetan, teknologia berrien ezagutzan...) gehitzen ari direla, ezin garrantzitsuagoa da azpimarratzea bestelako gizarte bat, elkartasunean eta laguntzan oinarritutakoa, egin daitekeela (Juan Carlos Tedesco in Francisco Imbernón "Cinco ciudadanía para una nueva educación" Bartzelona, 2002. 47.-61. orr.).

Beraz, alderdi politikoak –demokrazia- eta sozialak -desberdintasun zuzengabeen kontra- erlazionatu behar dira. Gu orriotan orientabide zenbait ematera mugatuko gara.

Margarita Bartolomek dioenez, hiritar gaitasuna hiritartasunerako prestakuntzaren oinarritzko dimentsioa da. Hiritar gaitasunaren mamia da, batetik, gure eskubideak eta erantzukizunak, eta, bestetik, dagozkigun arazo eta gai publikoak ezagutzea. Hezkuntza zibikoak oinarritzko tresnak hornitu behar ditu erakunde politiko eta sozialak zertan diren jakiteko.

Baina gure ikasleek demokraziak nola funtzionatzen duen ere jakin behar dute, norik zein botere eta aginte daukan, zein bide dauden parte hartzeko eta zertan den benetako parte hartzea. Aukeratzen ikasi behar dute, eta kritikatzeko ere bai; bozkatzeko eta erantzukizunak galdegiteko; euren erabakimena baloratzen eta sistemaren akatsak batzuentzat irabazpide edo oinarri direla ikusten, hots, interes komunak eta kontrajarriak daudela ikusten eta nola jarduten duten ulertzen.

Horrela, errealitatea ezagutuaz batera, izango du aukera ganoraz onartzen, gaitzesten, aldatzen edo hobetzen saiatzeko.

Hiritar gaitasunaren gogo kritiko hori komunikabideak juzkatzeko ere erabili ahal izango du. Komunikabideak hain garrantzitsu eta eraginkorrak direnez, ezinbestekoa da edozein hiritar, eta areago gure ikasleak, gauza izan daitezkeen arazo sozial eta politikoez gogoeta egiteko eta haietaz jasotzen dituzten informazioak eta iritziak baloratzeko.

Azkenik, aipatu behar dugu hiritartasun kultura honetan bake-bidea gatazkak konpontzeko erreferente bazterrezina dela. Horregatik, gure ikasleek indarkeria mota ezberdinen gaineko pentsaera kritikoa garatu behar dute eta gaitasun sozial aproposak bereganatu behar dituzte, elkarrizketa oinarritzat hartuta, gizarte zein lagunarteko gatazkak konpondu ahal izateko.

Laburbilduz, esan genezake hiritarrok jakitun izan behar dugula bide luzea falta dela Giza Eskubideen Gutuna zinez eta guztiz praktikan jartzeko. Pobrezia, zapalketa soziala, bazterketa eta eskusio sozialaren kontrako borroka mende honetako lehentasun dira. Gure ikasleek gizarte eredu berria eraikitzekeo jardun beharko dute, askotan propagandistikoki aipatu ohi den ongizate soziala (lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza...) benetakoa izatekeo; inolako eskusiorik gabe, hiritarrek euren dagozkien gaitan libreki eta benetan erabakitzekeo; bakea eta bizitzeko eskubidea munduko hiritar guztiei bermatzeko.

HIRITARTASUN PARITARIOA

Hiritartasun berri honen erronka nagusia da genero-aurreiritziak gainditzea, bizi-bizirik baitaude gure bizitzaren arlo guztietan, hala publikoetan, nola bizitza pribatuan eta harreman pertsonaletan. Hortaz, hiritartasun paritarioa ezartzea guztientzako dema da, politikari eta erakundeetatik hasita, mota guztietako kargudunak bitarte, hiritar arruntetaraino.

Garbi dago orain arteko hiritartasunaren kontzeptu eta definizioak genero-aurreiritziek markatu dituztela, askotan gizonen bakarrik eratutako diskurtso politikoei, tradizio kultural eta erlijiosoei eta ikuskera historiko eta soziologikoei jarraikiz pentsatu eta eratu baitira. Gainera, ia beti gizon/emakume banaketa onartuta eta,



ondorioz, gizonei eta emakumeei ezaugarri ezberdinak atxikita. Emakumeek, familiaren zaintzaile, emozioak eta berezko sentimenduak sinbolizatzen dituzte.

Beharrezkoa izango da hiritarraren kontzeptua berriz planteatzea, arlo pribatua berriz baloratzea eta emakumeari aitortzea ekarpen handiak egiten dizkiola taldeari, baita munduan oso zeregin garrantzitsua duela ere.

Bestalde, hiritarraren kontzeptu berria emakumearen ekarpenak egokitu beharko dira.

Hiritartasun berria benetan paritarioa izan dadin, gogotik ahalegindu beharko dugu. Jakina, gure ikasleengan sustrai egokiak sortu behar dira, azken batean, beraiek baitira geroa eta arazo honen korapiloa guztion barne-barnean ere askatu behar baita.

Irakasle bakoitzak bere praktika zehatza erabaki behar du harreman pertsonalak hobetzeko eta eredu egokiak transmititzeko. Gomendio batzuk prestatu ditugu langintza horretan lagungarri izango direlakoan:

- Emakumearen oraingo egoera aztertzea. Emakumea zertan eta zelan dagoen diskriminatuta ikusten saiatzea, datu ahalik eta zehatzenen bitartez.
- Geure buruaz gogoeta egitea, gure baitan eta gure inguruan jokamolde eta jarrera diskriminatorioak antzemateko.
- Irtenbideak pentsatzen saiatzea, lehenengo eta behin geure burua inplikatzeko eta gero aldakuntza sozial sakonagoak eragiteko.
- Eta azkenik, aritu, jardun eta egitea, parekotasuna, utopia barik, errealitate izan dadin.

Uste dugu honako arloetan jardun daitekeela:

A. Politikan

- Oraingo analisiak nabarmendu behar du bai parte hartzeari begira, bai ordezkariari begira dirauten desberdintasunak. Emakundek eta talde feministek azterketa estatistiko ugari egin dituzte Euskal Herrian eta munduan dauden ezberdintasunak erakusteko.
- Ikastetxean parte hartzea eta ordezkari zelan dauden aztertzea: ordezkariak, eskola kontseilua, zuzendaritza... Ikusiko dugu desberdintasunik ba ote dagoen eta, egotekotan, zergatiak dauden. Oso interesgarria izango litzateke ikasleek aztertzea benetan prest ote dauden parte hartzeko eta ordezkariak izateko eta diferentziarik ba ote dagoen gai horren inguruan neska eta mutilen artean.
- Irtenbideak arazoaren testuingurutik bertatik pentsatu behar dira. Ikasleek desberdintasun egoerak eta egintzak gaitzetsi behar dituzte: neskak, autoestimazioa handituz, konturatu behar dira edozein postutan egokiro joka dezaketela eta mutilak, berriz, nesken interes eta helburu komunak dituztela, izan ere, horrela, bai batzuek eta bai besteek demokraziaren hutsuneak edo akatsak zuzentzen lagun dezakete. Interneten badaude gazte foro asko gai horietaz -parte hartzea, ordezkariak, demokrazia- aritzen direnak.
- Eta azkenik, ikasleak kontzientziatu behar ditugu ikastetxean bertan eurek ekimenak izan eta burutu ditzaten.

B. Lanean

- Oraingo egoeraren analisiak erakusten du diferentzia handiak direla: emakumeek langabezia handiagoa dute, lan-baldintza txarragoak, soldata baxuagoak, lan bikoitza (etxea, umeak, zaharrak...). Ikerketa asko egin da gai honetaz.



- Ikasleek beren auzunea, familia, senideak, koadrila, eta abar azertu behar dituzte eta zehaztu behar dute zein motatako desberdintasunak dauden. Gainera, gogoeta egin beharko dute jakiteko norberak zer egiten duen ezberdintasun horiek iraun dezaten edo desagertu daitezkeen.
- Ikasleak saiatuko dira beren inguruneke arazoetarako irtenbideak topatzen. Hasi kontzientziazetik - emakume askoren lan isil eta ezkutuaren balioaz jabetzen- eta emakumeen lantzat hartu ohi direnak -etxeko antolamendua, janaria, garbiketa, familiakoak zaintzea...- egiten hasteraino. Gainera, lan banaketa hori gizartearen ustez gizarte "humanitario" batean suertatzen da.
- Azkenik, oso interesgarria izango litzateke eginbide plan bat egitea (nondik hasi eta nora heldu nahi dugun zehaztea). Horrela ikasleek erlazioan ahal izango litzukete beren erabaki pertsonal, sozial eta politikoa emakumearen egoerarekin eta konponbide posibleekin. Hasteko, interneteko eztabaida foroetan, boluntario elkarteetan, multimedia ekimenetan eta abarretan har daiteke parte.

C. Arlo sozial eta pertsonala

- Arlo hau askoz ere konplexuagoa da aztertzen, izan ere, ezberdintasunak mende askotako historiaren, kulturaren, politikaren, erlijioen eta abarren eta botere erlazioen eta erlazio pertsonalen ondorio dira. Gai hauetaz ikerketa zehatzak egitea oso zaila da. Hala eta guztiz ere, alderdi asko klasean jorra daitezke, hala nola, banaketa hau: esfera publikoa (sozialki oso garrantzitsua) —gizonezkoa— eta esfera pribatua (sozialki garrantzi gutxikoa) —emakumezkoa—. Banaketa horrek estereotipo zehatzak ekarri ditu eta gizon-emakumeen rola sakon markatu ditu.
- Gure ikasleek inguruan gertatzen dena antzeman behar dute eta ohartu emakumeek egin ohi dituzten lan asko oinarritzeko direla bizitzeko, eta norberak, baldin eta bere buruarekin harmonian eta gogobetetasunez bizi nahi badu, ezinbestez egiten jakin behar duela. Esate baterako, emakumeen lanak al dira nork bere burua zaintzea, nork bere maiteak edo behar dituenak zaintzea, erlazioatzea, komunikatzea, errealizatzea eta abar? Ikasleek jakin behar dute estereotipoak ez direla beraiek sortuak, baizik eta aurrekoengandik jaso dituztela eta, ondorioz, gairik ditzaketela. Ikasleak era berdintzailean bizi daitezke, beren sentimendu, emozio eta pentsamenduen arabera, talde erlazioak egiaziagoak, aberatsagoak, errealagoak eta beteagoak izan daitezkeen.
- Arlo honetan irtenbideak bilatzea errazagoa izango da, neska-mutil guztiek egin baitute noizbait zerbait generoen arteko diferentziak markatzeko edo eragiteko. Neska askok sarritan izaten duten jokamoldeak berritzen du diskriminazioa. Beren eguneroko bizitzako diskriminazio-egoerak zerrendatzea izan daiteke hasteko era egokia.
- Arlo honetan funtsezkoa da konpromisoa, bizitza pribatuan gauza asko egin baitaitezke hiritartasun paritarioa guztion lorpena izan dadin eta ez politikari batzuen edo giza eskubideen gutun bateko hitz hutsal batzuk.

HIRITARTASUN ANBIENTALA

Hiritartasun berri honek ekosistema egokia zaintzeko eta iraunarazteko eskatzen du. Naturarekiko erantzukizun kolektiboa onartzen du, geroz eta garbiago baitago lur hau mugarik gabe ustiatzen jarraituz gero, gure ondorengoen etorkizuna kolokan jartzen ari garela. Hori dela-eta, komenigarria da alternatiba ezberdinak daudela kontuan hartzea: garapen iraunkorra –*développement durable*–, deshazkunde jasangarria –*décroissance soutenable*–, deshazkunde jasangaitza –*décroissance insoutenable*– eta hazkunde jasangaitza –*croissance insoutenable*– (P. Viveret "Croissance et décroissance, vrais et faux débats" in *Alternatives Economiques*, 224. zenbakia, 2004ko apirila. 74-75. orr.).

Hortaz, ingurumen hezkuntzaren egitekoa oso garrantzitsua da, gure ikasleek gero era egokian joka dezaten ingurumenari dagokionez, hala luraren egoera eta gizakiaren eragina ezagutuz, nola lurra zaintzearen aldeko jarrera positiboak garatuz.

Gauza jakina da ingurumen hezkuntza ez dela irakasgai soil bat, baizik eta maila eta gai guztietan landu beharreko dimentsioa. Ikuspegi horretatik begiratuta, hemen jarraibide xume eta posible batzuk emango ditugu, eurodimentsioarekin nola erlazionatzen den erakusteko.

Ingurumenari dagozkion kontuak gero eta garrantzitsuagoak dira hiritarrentzat (ikus, adibidez, 2004ko Ekobarometroaren emaitzak interneten).



<http://www.ihobe.net/euskera/publicaciones/Seleccion/seleccion.htm>

Hori dela-eta, talde ekologistek agintariak kritikatzeko eta iritzi publikoari aukerak aurkezteko lan eskerga (ikusi, adibidez, <http://komunika.net/amalurra/>) egiten dute, eta Europako erakundeek ere erabaki batzuk hartu dituzte. Oso garrantzitsua izan zen Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa 2002-2012 (ikusi euskaraz eta gaztelaniaz in Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 17. zk. 2003-II. IHOBE).



Nafarroan gobernu erakundeek Ingurumen Hezkuntzarako Estrategia orokorra diseinatu dute eta bertan hezkuntza-arloaren egitekoak zehazten dira. Gehiago jakin nahi izanez gero, interneten kontsulta dezakezu: ikus www.navarra.es/home_es/Navarra/Instituciones/Gobierno+de+Navarra/ webgunean *Medio Ambiente* atalaren *Educacion Ambiental* azpiatalaren barruan strategiari buruzko dokumentu nagusia.



Europako estrategia abiapuntutzat hartuta, EAEn “Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia (2002-2020)” eta “EAEko Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006)” (IHOBE, 2002) diseinatu eta onartu dira. Bertan, 56. orrialdean, ikus daiteke hezkuntzari ezarri zaizkion egitekoak. Gure ustez, interesgarrienak Eskolako Agenda 21 (udal planaren barruan, 40. eta 48. orrialdeetan) sustatze eta aplikatzeari buruzkoak dira, Europarekin ez ezik, munduarekin erlazionatzeko era ematen baitigu. Gainera, ikastetxe askotara zabaldu da eta praktikan jartzen ari dira CEIDAREN laguntzaz (ikus oso zehatz eta egoki “Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida” 2002, CEIDA eta, laburrago, “Ae21”). Gainera, oso ongi uztartzen ditu, oreka ederrean, alderdi teoriko eta praktikoak, ikastetxe barruko eta kanpoko alderdiak.